**2. mailako Hirigintza: sarrera**

# IBILBIDEKIN ERLAZIONATUTAKO HIRI-PROIEKTUAK

**7. ariketa**

**Hiru** plano A-1 landuko ditu talde bakoitzak, aurreko ariketako herri berdina aztertuz:

Ibilbide bakoitzeko espazio publiko esanguratsu bat hautatuko da (kale, plaza, lorategi edo beste), haien inguruan hiri-proiektu bana garatuz. Espazio publiko horiek trinkoak zein zatituak izan daitezke. Talde bakoitzak, beraz, hiru hiri-proiektu proposatuko ditu (haien artean ere nahasi daitezkeela):

**1**.- Kultura-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntzak antolatuko dira espazio publiko bat osatuz:

- Anfiteatro estaligabea (harmailak), ikuskizun ezberdinak garatzeko (kontzertuak, teatroa…).
- Aldi baterako erakusketa-pabiloia.
- Turismo-informazioko kioskoa.
- Erabilera anitzetarako esparrua (jaietako txosnetarako, azokak garatzeko…).

**2**.- Kirol-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntzak antolatuko dira espazio publiko bat osatuz:

- Frontoi estaligabea.
- Skateboard *halfpipe* pista (edo beste motatakoa).
- Eskalada egiteko horma.

**3**.- Ibilbide geldoarekin erlazionatutako hiri-proiektua: Honako eraikuntzak antolatuko dira espazio publiko bat osatuz:

- Parke lineala.
- Kafetegia.
- Komun publikoak.
- Umeentzako jolastokia.

Eskala librea da (proiektuak azaltzeko beharrezkoa dena; ez ahaztu kokapen-planoa). Planoak paperean (A4-ra tolestuak) **eta** PDF formatuan emango dira (CD batetan, 300 d.p.i. kalitatearekin, ondo orientatuak eta izenburu adierazkorrekin, adibidez: "2. Bergarako kirol-ibilbidearekin erlazionatutako hiri-proiektua.pdf"; CDaren azalean taldearen izenak, herria eta irakaslearen izena errotulatuko dira; PDF edo plano bakoitzaren gehienezko pisua 10 megakoa izango da). Adierazi plano guztietan iparra, eskala grafikoa eta taldekideen izenak.

Ariketak **otsailaren 16**ko eskola hasieran emango dira. Egun berean, talde bakoitzak **10 minutu**ko aurkezpen publikoa egingo du, proiektuaren ezaugarri nagusiak azalduz (ekarri aurkezpenerako formato erabilgarri bat, CD batean: Power Point, ACDSee, jpg, tiff…)

Donostian, 2009ko abenduaren 15ean

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño